

ZUGARAMURDI

ε~RAMUgp~



SASKI-NASKI aldizkarian idazlan bat idazteko eskaria egin eusten, orretarako beste aldizkari batetik gaiak eskintzen eustezala.

Jakingarriak batu eta idaz-lantxu ori eratzen niarduala, auxe etorri jatan burura: Zergaitik ete nago ni Zugarramurdiko leizak ikusi barik? Eta geiago barik bertara joatea erabagi neban.

Eldu gintzazan Urdazubi erri politera eta an jakin genduan leiza ori non egoan. Zergaitik ez ete dago bide-ertzean Zugarramudiren izenik be. Leizak dagozela besterik ez.

Bide zidor estu ta txatar bateri jarraituz, berebilla do-doi joateko lako bidearen azkenean aurkitu genduan leiza ori. Sarreran andra batek sarrera-ordaiña eskatu euskun eta ikusi gendun leiza ori iñok ezelako azalpenik emon barik.

Goibel biurto nintzan barriro errirantza.

Erri aretan da baita "Gero" liburu ederra idatzi eban Axular'en jaiote-etxea. Barriro itaunketan asi bear etxe ori non dan jakin gura ba'gendun. Ez egoan iñon ezelako barririk. Gizon erdeldun batek esan euskun bidea nondik zan eta bere esanak betetetuz eldu gintzazan Axular'en etxera. Aurreko ormearen erdian egoan idazki batek ziurtatu ginduzan, Euskal-

tzaindiak eta Naparroa'ko Gobernuak ipiñia zan idazki ori, oker ez ba'nago.

Egun batzuk geroago, Karmen'go Ama'ren eguna zala-ta, Aita Santi Onaindia gaz alkartu nintzan Larra'ko lekaide-etxean eta Mezearen eta bazkariaren bitartean izan gendun alkar-izketa labur baten Zugarramurdi aitatu gendun eta Santi bera gertu agertu jatan egun baten Zugarramurdi'ra joan eta astiro toki ori ikertzeko.

Geroago ZER gure aldizkari onetan irakurri dot Aita Santik berak ara egin eban osteraren baten barria, igazko iraillean argitaratu zan 144n. zenbakian agertzen dana.

Dana dala, esango dodan lan au egitea dagokionari, nik auxe eskatuko neuskio: Urdax eta Zugarramurdi'ra bideak ikur edo bide-oiar egokiak ipiñiaz argitu, Zugarramurdi ta Urdazubi'ri buruz liburutxu batzuk idatzi eta errez eskuratzeko lekuan ipiñi, leizaren aurrean kordairazko jakingarriak ezarri idatzita, esaterako Koba aren sarrerako jesarlekua, barruan sorgiñen autorlekua zein zan, leiza orrek dauan bigarren agoa non dagon, leizatik urrean dagoen akelarrea zein dan eta gai orreri buruz jakitunak diñoena... Eta bideak ondo konpondu...

Eta Axular'en etxean beste barri-emote batzuk: Liburua zein zan, liburuaren gaia, idazle onen bizi-tzako barriak eta abar... Urdazubi eta Zugarramurdi gai dirala, irudimena dauken eratzailleak gauza ederrak gertatu leikeez eta gertatu bear dabez.

Baiña zertarako ori? Geure kondaira jakin dagi-gun, gure ibillaldietan geure erria ezagutu dagi-gun, kanpotik datozen txangolariak zer-ikusiak izan dagi-guzan eta beste zio askogaitik. Gauzak ondo egin bear dira, eta ondo egiñak ondo agertzen dira.

OLAZAR'tar MARTIN'ek